Euzkadi

BERTOLDA ETA BERTOLDIN

II.-Bertolda'ren Malmuzkeriya (yarraipena)

Eguna etorri zaneko, yagi zan Bertolda lasto arterik eta bakaldunaren epayaz ondo urteniko andrearen billa juanik, ba-diotso:

—Bakaldunak zer erabagi dauan, ba-aldakizu yakin?

—Ez, nik, ezertxu bere, zeuk esan ezik—erantzun eutsan Aurele'k.

—Burubegitallua apurtuteko aginda dau lenengotan esan eban lez, eta aren erdiya beste andreari emoteko. Antza danez, ak andreak, zure alde yaurtiriko epaya okertzat arturik, gora yo dau, eta bakaldunak, olako matrakalarik geyago ez entzuteko, zoriyoneko burubegitallu ori zatitutia gura dau orain, bata ta bestia kitu gelditu zaitezen.

—¿Zer diñostazu? ¿Bakaldunak agindu dauala nire burubegitallua austeko? ¿Berberak ezeban, ba, neuri oso-osorik biurtuteko epaya yaurti? Nire lepotik barre egin gura zatoz, oyez. ¡Zuaz ortik!

—Eneuke gura nik, ba, txarragorik etorri dakizun.

—¿Txarragorik? ¿Zer legoke niretzat ori baño txarragorik, ba?

—Gizon bakotxak zazpi andra artu dagikezala agindu dau bakaldunak: txarragorik ala onagorik, zeuk begiratu orain. ¡Ezta izango etxietan ondamendi makala ainbeste andragaz!

—Baña, ¿zer dantsut? ¿Gizon bakotxak zazpi andra euki legizala? Uriko burubegitallu guztiyak apurtu eragitia baño askozaz txarrago da ori, oindiño; bai, eguno ba'da. ¡Oi! Baña, ¿zer burutaldik yo dau bakalduna beingo-beinguan?

—¡A! Besteri ezin nekizu nik esan, ertakit-eta. Neuk entzun deutsadan-deutsadana diñotsut nik, eta, orain, zeueri androi yagotsue artiak artu biarra, gatxak aurrerantz biderik egin eztagiyan.

Eta kana ta erdiko ziri eder au sarturik, ene Bertolda aldendu zan andreaganik eta yauregira yuan zan ostera be. Gabera orduko txiripiñak eta yigotiñak izan biar ebela eritxon, eta patxaraz itxagotia baño beste biarrik ezeukan eurok ikusteko.

Aurele'k, barriz, buruz-belarri siñistu eban Bertolda'k esan eutsana, ta gizon au aldendu zanekoxe auzoko andrakana juan zan arrapaladan Bertolda'ri entzunikua esaten. ¡Areek entzun eben entzutekua! Asarre bizitan yarri ziran ots-otsean, yo goyak eta yo beiak, eta begiyak be su. Ordubete garreneko erri osuak ba-ekiyan yakitekua eta bi illa andrazko baño geyago ba-egozan batuta batzar egiten. Eta otoz-otuan etorkiyuen arazo zorigogorreko onegaz luzaro ta garratz erausi ostian, alkarregaz yuan biar ebela guztiyak bakaldunenera erabagi eben, eta an, bakaldun aurrian, garraiziyaren garraiziz eta diadarraren diadarrez, euren ala ezin leukiala ezer egin bakaldunari erakutsi ta lege emon-barriya beingo-beinguan atzeratu erazo. Amurruz bitsa eriyuela ta asarretan irakiten eldu ziran, beraz, yauregira eta oyu ikaragarriyak ataraten. ¿Nok ulertu ezer eurai? Bakalduna gortuta eguan iya zaratokaz eta, zeri baña zeri izan ete eikiyon zarraparra au igarri eziñik, burua nastau ta aua zabalik arrituta gelditu zan. Baña gerogarrenian senera etorrita, olako biurrekiririk bere aurrian irautia bakaldunari biar yakon lotsea galtzia zala-ta, asarratu zan egunoko indarren, galdu eban aldian eukan eruapen apurra, eta, amurruz beterik arpegiya be bellegi-bellegi eginda, ba-diñotse andrai gogor eta garratz:

—¿Zeri dira garraiziyok, edo nondik norakua da matxinada au? ¿Nok arranok yarri zaituez orretara burutik eginda? ¿Zetatik sortu da askanbilla au? Ala demoniyuak yabiltzuez barruan? ¿Zer zorigaiztok yo zaitueze? Esan, esan, bein edo bein, andra diabruok!

—¿Zeri diran gure garraiziyak—urten eutsan andra batek, guztiyetarik lotsagaiztokuena ta amorratuena—; eta zuri otu yatzun burubakokeriya, ¿zeri edo zetarako, da, ba? Ala goyanengotik eginda zagoz gizon bakotxak zazpi andra artu dagizala aginduteko?

—¿Zer irain egin deutsuet; zer zoritxar ekarri deutsuet nik? ¡Esan argi ta garbi!

—¿Oindiño be? ¿Ezteutsugu esan, ala?

—Eztot ezer ulertu; esan barriro!

—¿Gortuta zagoz, ala; gortuta? ¡Eztago gorrik gorragorik entzun gura eztauna langorik! Barriren barri diñotsugu, ba, ta aditu ondo: astakeri andi bat egin dozula gizon bakotxak zazpi andra artu biar dituzala agindutiaz! Oba zenduke bakalderriko arazuai yaramon geyago egin, zuri ardurarik ezteutsuen gauzetan sartu barik!

III. - Bakalduna ta Emakumiak

—¡A, eskertxarreko andra nabarmenok! —egin eban oyu bakaldunak—. ¿Noiz agindu dot nik olakorik? Alde, alde nire ondotik ontxe berton eta zuaze inpernuko ondarretara, madari-madari, alamenekuok alakuok! Auntxe ikusi dot argi "andrea" diñonak "balbea" esan gura dauala, balbeak berak baño zoritxar geyago ekarri daruazuez-ta. ¿"Emakumia"? "Satorkumia" obeto yagotzue zueri, satorren antzera solo ta bazter itxulastu ta aspikozganera iminten dozuelako. Etxe baketsuren batetik alde eragiten deutsuenian, baztertetan aurkitu daikezuezan zatarkeri ta naste gustiyak eskubereaz batu ta etxe atara bertara yaurti oi dozuezanok; edopein etxetan sartzian, zeuen griña ta lera txarren sua ta garra daruazuenok, ¿zer arie zuek onik, txarra baño? Iruzurkeri ta saldukerizko sastegiyok; inpernuko leiona baño txarraguok, zeuen senar gizaraxuai inpernuan bertan baño negar eta alarao geyago eragiten deutsezue-ta; ut ortik! Aitaren galgarriya, amaren negargarriya, anayen lazkeriya, aidien lotsagarr-ia, etxeko ondamendija, eta, itz baten esateko, gizaseme guztiyen aigabia ta lotsa baño etzarienok: zuaze emetik milla zeranogaz zeuen galdumendiyarako ta etzaitze nire aurrian eguno agertu! ¡Au izan da zaratazkua! ¡Ako zarraparrea atara dabena andra zoro ergelok, ta ezeri eztaitz, atan be! Baña, nik yakingo ba'neu zein zitalkeri au asmau dauana nor izan dan, bere-beriak artuko leukez, irabazi be egin dituz-eta.

Emakumiak yuan ziranian baretu zan bakalduna pizka bat, eta Bertolda, zalaparta guztiyak nasai ikusteko eskutauta egon zan sokondotik urtenik, ba-dua bakaldun aurrera ta ba-diñotso irriparrez:

—¿Zer diñostazu, ene bakaldun enia? ¿Eneutsun nik bart esan, atzo andren goral, benez irakurri zenduan liburua, gauz dolara orduko iruntzietara irakurriko zenduala? Aor, ba; andrak eurak etsi erazo deutsue.

—¡Orreen buruaren barrabana!—erantzun eutsan bakaldunak—. ¡Zazpi andra gizon bakotxak artu biar dituzala agindu dodala nik; asmau be egitia! Amesetan be etzatan eguno olako diabrukeririk bururatuko. ¡Bedar txarra dira orreek; piztirik okerrenak!

—Ba-dakizu, oyez, zu ta biyon artian dogun egiyunea.

—Bai; gomutaten yat atzokua ta artean iraustan, ba-dautort. Baña, zatoz ona; yegarri zakidaz neugaz ementxe, bakaulki onetan, irabazi be egin dozu-ta.

—Maitasun eta yaubetzak, oba lagunik ezak; oba dozu zeuk bakarrik agindu, yaun ta yaube bakarra zeu zara izan be ta.

—¿Zeu izan ete zara, gero, zirriparra onen asmatzallia?

—Ondo igarri dozu zuk ori lenengotarik; baña, alan be, ezin ziñeist ezetariko sigorrik ezarri, asmakeri au neuk emon eutsun berbea betetako baño ezta izan-da.

—Gogo orregaz baño izan ezpa'da, partatu egiten deutsut. Baña esan egidazu, zelan gertu dozun diabrukeri au.

—Ezin errezago: zuk burubegitallua emon zeuntsan andreagana yuan eta areri esan deutsat gizon bakotxak zazpi andra artzeko egin dozula zuk agindu. Beste barik, erlien antzera batu dira beingo baten erriko andra guztiyak, zurrumurruka ta usobilloka, ta, ona etorririk, zeuk entzun dozuzan orroe ta uluak atara erazo deutsatez.

—Asmatzalle ona zara, orraitiño—esan eutsan bakaldunak—baña okerra be bai; ezta gaur zuk egin erazo dozun biurrikeriyak ba-leukian amai onik ez izatia. Andra gaisuak, ziyo bat ezeze, milla be eukiñuez nire aurka asarre eragoteko. Neuk ausi ezpa'neu, eneukian siñistuko andrak oren buru gitxikuak diranik, ziyo andiyo bat euki ezik olako abarrotsak egite-o. ¡Bai otu zeuri aitzaki ezin obia androi neure ala amorratu erazoteko! Eta areeri ezeze, neuri be erazo egin deustazu emakumien aurka iñon diranak esaten. Ludiyan diran urre guztiyakaitik be eneukian olakorik esan gura izan, eta esan izanak min emoten deust, eta damu be bayat. Atzera diñotsut, beraz, andrea onbidezko iturriya dala, maitasunezko ibaya, ekandu onezko baratza, samurtasunezko mendiya, txairotasunezko zelaya, adeitasunezko landea, ontasunezko torria, eta iraunkorra ta zintzua izaten, barriz, itxasoko ugiñak, gau ta egun, yo ta yo daragoien atxak eurak baño sendo ta zinduagua. Baña nire adizkide izan gura dagiyanak ezpegike iñoiz emakumien aurka murtik atara, ezteutselako areek iñori gatxik egiten, ez ezetariko iskillurik iñoiz erabilten, ezta iñoren irriparrerik billatzen. Orrez ganera, ene gizona, emakume guztiyak dozuz mazal, samur, onbera, eztitsu, otzan, maitagarri eta izan leitekezan mendu onenakaz orniduak. Ba-dakizu, beraz: ez niri andren ala barriro asarratu erazo, ebagi egingo zendukeda zalako osterantzian.

—Egon ardura barik—erantzun eutsan Bertolda'k—; ni neuk ezteutsat kitarra orreri soñu geyagorik atarako. Urrengorarte itxagon egin biarko, ta artiatan adizkide izango.

—Bai; ba-dakizu esakereak zer diñon: dabillen urari ta tximinuari, agiñik ba dagiriyo, urrun akiyo.

—Orraitiño be, ur geldiyari ta ao itxiyari, ago beti adi.

OTXOLUA.

(Italeratik euzkeralduta).

Azalgarriyak: "Maemuzkeri", astucia; "gora yo", apelar; "txiripiñak eta yigotiñak", comedias, espectáculo; "ots-otsean", al instante "otoz-otuan", inopinadamente; "erausi", charlar, vocear; "nire ala" "andren ala", en contra de mi, en contra de las mujeres; "zeri dira garraiziyok", porqué son estos gritos; "goyanengotik egin", estar chiflado (goyanengo: camarote, bohardilla-; "bakalderri", reino; "balba", "jettatura" y también "la parca"; "lazkeri", discordia; etsi erazo", desengañar.

Euzkal Orri onen irakurleak, ain maite daben Izkuntzaren aldez egiñiko agurtzat artuko dabe euzkerazko iragarkiak ipintea. Salerosleak ulertu beie ondo.

AGENCIA FUNERARIA
DE LOS
HIJOS DE BARO
Carrozas, féretros, coronas, hábitos.
CARNICERIA VIEJA, 2.
Teléfono 10.207.

Euzkaldun Salerosleai

Idazle gorengo askori zor, euzkel atal onek lortu daben edertasunak iraun dagian EUZKADI onek euzkerazko iragarki edo anuncioak emetik aurrera agertuko dauz. Bazotxak gura daben zatian edo tamañuan eta guradaben eran agertuko dira, baita bakotxak gura daben egunean bere.

Onexek izango dira saneurri edo presiuak:

Illean iragarki bat, lerroko edo lineako, 0,75 laurleko.
Astean iragarki bat, lerroko, 0,50..
Astean iru iragarki, lerroko, 0,40.
Egun oro iragarki bat, lerroko, 0,30.

Guztiak oartuten dagoz iragkerra izan daiten. Orrela luzaroagoan txindi emon bearra bere txiarkia izan daitela lerro gitxikoa, iruan dagile iragarkiak.

Iragarkiak eztazu zabaldu bearra lerro askotan eukiten, sarri agertzean baño.

AZALPENAK

Aldundijaren jabe ta buru socialistak egin dirala ikusi dogu, Laiseka jauna lendakari dala. Laster apurka udalen jabe be re egingo dira. Aldunak autu biarko diran aldijan zer egingo dabe emeko kistarrak? Lengo eran banandu antzian juango dira, edo abertzaleai lagunduko ete dautsoe? Aldijau ezta zizki mizkijetan ibilteko, garrantzi andiko gauzak jokatuten dauguzalako. Alderdi bi bakarrik aurrez aurre jarriko diran uniak eldu yakuz: batetik ezkertarrak, bestetik eskumatarrak. Euzko lurrian iñork beste asmakizunik ezin euki daike, bakalduntarrak, eta antzekuak zetan ixanik eztaukelako.

Len agintaritza lortzeko edo deduzko aurkijetan ixateko jokatuten bazan, bere, erain sendijetzaz, bakia ta aberrijatzaz jardun biar da. Azaletik politika arazuatan ibilli diranak, subagaz ibilli dirala ikusi dabe ta nork daki noraño elduko dan gar ori. Ordurik txarrenak oraindik eztira eldu, erkaltzaleai ezyagoke ba orain uzkurtza ren eta sendijaren aurka egitia, baña bein aldunbatzarrak egin oordukoxe, agintaritzan gogortu dirala igarten danen orduban asi ko dira okerrik andijenak egiten. Katokibubai egen yake beti banaduta ibiltia, ta be lu zanean regar egin ta bata besteai erruba botatia. Baña gixona danak, aurretixik oldoztu biar dau zelan gertauko dauzan bidiak, eta eragozpenak zelan lautuko dabezan. Sarri esan dogu katolikuben artian gauzatxu batzuk izan dirala arazo gurenen zoztor eta eragozpen. Ezkertarren artian obeto ikasita daukoe apaltasuna ta eruapena politika gauzetan. Ezta barrukua ixango apaltasun ori baña guztijen onerako norberaren arrotasunak aldebatera itxiten jakin dabe. Ezkeratarrak ondoan dakijen antziñeko gauzetan eztala bixi biar, eta ontzat daukoezan gixaldijetako goyagak eta zarren esanak, guztijak barriztuten dira ta alkartuten dira alburu baten jarraltzale ixateko. Eskumatarrak ostera antziñako gogayai begiradagoz, obarik munduban ezin ixan daitekelakuan. Obena da gurasuak ibilli ziran bideatik alde egitia. Baña len onak ixan ziran bidiak gaur obia euki leukie. Juazan ba onenetik. Itzalik gurena eukiko dautsuegu eurai, baña beste era batera gudan ekin biar dogun ezkero ezkara eurai loturik egongo. Euzkadi'n batez bere jazoten dana da, alderdirik geyenak, milla urte euki arren bere, eurak onenak dirala uste ixatia. Besterenik eztabe entzun gura. Baña oldoztu ete dabe iñoiz alderdi barrijak arazoen itzutelrak ekarrijak eta eratubak dirala? Alderdi bat ezta sortuten gixon bateri buruban sartu yakola bestian aurka juatia, uniak olantxe eskatuten dabelako baño. Alderdi barrijak beti eukiten dabe uniaren zegaitija. Fueruen alde, karla ren aldez eta beste gauza kutun askoren aldez ekin ebenak geure itzalik samurrena meresi dabe, baña gaur alderdi orreik ete dira onenak Euzkadi gaizkatuteko? Eurak baño indartsubagua dan alderdirik ez ete dago? Abendaren sustraya, guna jo daben alderdija ezte dago? Uzkurtzaren alde, senajaren alde, fueruben alde lan badagi, zegaitik beroneri ez lagundu? Gogai barrijak lateri orotan gurendalortuten dabe, gogai oneik txarrak edo onak direan orain eztogu esango. Rinovarsi o morire" iñuan D'Annunzio'k eta oker bere ez eguan ori esaten ebanean. Guk biar dan eran ulertu daigun esakun ori eta barrikuntza irozo daigun abendaren antziñako muinaren altzua.

Erkala eldu yaku, orain ortik zer jazo daitikean susmatu daigun eta ez lotan eguan ezer bere eztala jazoeneta. Belu ixan go ete da gero. Zuur egotia oba da gertakizunai erantzuna emoteko, gero negar egin baño.

LAUAXETA.

ERIJETAT

MANARI

ELEIZKIZUNAK

Illaren lenengo barikuan, zazpiretako mezan, Josu-Bijotz gozuaren opazko Jaunartziak eta otoiak egin ziran. Eta illuntzean be, eleizkizuna asmo bardiñaz egin zan. ¡Aintza Berari!

Orrilla'ko loraen iñarkun deuna eguben illuntzean asi zan. Jasokunde'ko Andera Miren, geure erri zaindari andija, lora ederrez ta argi politez ederto apainduta agertzen da. Ta gure neskato-mutikuen abesti politak Neskutza ren aintzaz, atsegingarri egiten yakuz. Gogo ta bijotzez diardue ta. Ainbat lagun eltzen da.

¡BIZKORTU!

Iraoko astietan, ainbat eta ainbat Udal edo Ayuntamentuk Aberrija ren eskubidiak lortu gurarik, lagi-zarraen aldezko eskakizunak egiten zintzo diardue. Emekuak be, uste da, urrengo batzarrian asmo ori artuko dabela. Biar litzake! Norbere gauzia eskatzeko bildurrik ez lotsarik ezta biar eta.

EDERTO!

Emeko abertzale batzuk, asmua artu dabe geure Aberrijaren ikurriña egitia. Ta, antza danez, asmo ori laster betetuko dabe. Ederto!

JUAN-ETORRI

Santurtze'n alditxu bat igarota, lengo astian etxeratu zan, Kapanaga'tar Patxi.

—Ereño'tik etorri zan Elordieta'tar Miren bere mutikuaz.

—Arrasate'tik etorrita, egun bat edo bi emen igaro zituan Dolara'tar Koldobika abade jauna.

—Venezuela'n urte batzuk igarota, egubenian etorri zan bere jayoterrira, ffapanaga'tar Burna, augustindarra. Ondo etorrija.

—Eguaztenian eta egubenian egon-ziran emen Arrue'tar Polikarpa, Gabika'ko txaunburu jauna ta Ordeñabe'tar Jon jauna, Nabarniz'ko kapillakua.

—Bilbo'ra juan ziran Usaola'tar Martiñe, Ikabatzeta'tar Paul eta Altzaga'tar Kandida.

ERIJOTZA

Igaro dan eguaztenian il zan, Urrengoerrota'ko Abruza'tar Joseba Justa (Kose Kusto) gizona, 87 urte zituala. Obiraltzia, egubenian egin zan. Jaunak zeruan euki begi.

Sendija'ri, atsekabian laguntzen dautsogu.

DURANGO'RA

Igandian, Durango'n egin zan Lauzirika jauna'ren Gotzaingintza jaire, emetik be lagun batzuk juan ziran. Eleizkizun ederra ikusita, poik etxeratu ziran.

EZKONTZA

Laster ezkontzen da, emeko Zearra'ko Artzubia'tar Jon mutilla Izurtza'ko Mendibe'tar Agate neskatilliaz.

Geure zorijonak.

OBERANTZA

Beazko'ko Ikabaltzeta'tar Kerman, lengo astian arrobi edo kanteran zauritu zan mutil gastetxua, egunokaz oberantza doia. Poztuten gara; ta osatu arin eta onde, Kerman.

ARTZAÑAK

Emeko artzañak, igaro dan egubenian saldu ebezan ardi-uliak edo lanak. Arrobia, bost ogerlekuan. Sanurri polita dan arren, iraoko urtietan diru geitxuago artzen oituak egozala-ta, alako ooz andirik ezeben agertzen. Baña, tira, ori gora-bera ekandua ez galtziarren edo, guztijak batera bazkari eder bat egin eben. Eta, azkenera, "animaziño" andijan sartu ziran...

Ordubaz batera mundua doiala ta ¡aurrera!

MAÑARIKO.

OIARTZUN

Lengo igandean Lekuona'tar Manuel eta Barandiaran apaiz jaunak Gazteiz'ko euskel ikasle sail batekin emen izan dira.

Etxerakuan gure txistulariak "Gernika'ko" ederkijo zien txalo ederrak entzun ere, biribilketa alai batekin agur egiñaz.

Lekuona'tar Martin Etxetxiki'ko semea epistolaz osdendu da. Zorionak.

Enparanguak seme bat izan dute. Millenekuak berdiñ.

Iturburu'ko Laureano Arbide Ugaldetxo ko neska zintzo batekin ezkondu da. Azalene, Gogorregi ta Urdaire ko mutillak berdiñ zorionak.

Mendintxeberri'ko Jokiñ Jaka ta moro tartean izan ta gero etxeratu da. Ongi etorri.

Arbide'tar Polentzi apaiz jaun emen zanda, Motriko'tik etorri ta.

Okelarre'ko gizongaztea ill da. Alargundu berri onen aizpa Soraluze'tik etorri bere aizpa ikustera eta bertan ill da. (G. B.).

ENARA.

AZPEITI

UDALAREN BATZARRAff

Endore jauna buru zutela batzartu ziran juan dan astelenez gure udal gizonak. Erabaki batzuek artu ondoren Jagoba txaidearen izena aldatu edo ez autarki bitartez egiten oldeztu ondoren bere izenakin laga diote.

Abertzaleak azaldu zuten erabaigaia izen ori azpeitiar euzkeltzale zintzo Etxegarai'tar Karmel'n izenagatik aldatzea, zan baña zortzi autarki aurka zazpi aldegotik len bezela utzi diote.

Ziñegotzi guziak euzkeltzaleak dirala ez degu ulertzen Etxegarai'tar Karmel'n bera jayo zan txaidearen izena ez opaldutzia.

Ala abertzalien burutik jayo zalako asmo ori jun dira beren aurkar.

Bermeo'ko endoreak bialitako urrutidazkia ere irakorri zan. Urrutidazki ori aurreko astean emengoak Euzko-Ezkola alde Udal oyekin landutzeko adieraziez zuzendu ziotenari eskerrak emanaz zan.

Beste erabakiak artu ta "Alfontso XIII" ibiltokiari "Duero" edo "Euzkadi" izena urrengo batzarraldirako utzi ondoren amaitu zan batzarraldia.

* * *

Irakorlea zer izkera darabiltela gure ziñegotziak iruditzen zazu Euskera?

Ez "Kolmenar"ko Udalian baño erdera geyago entzuten da gure errikoan.

Gañera bi kendu ezkero guziak "Euskeltzaleak" bazkunakoak dira.

Orregatik ez dakigu gazteleraz zertako mintzatzen diran. Euzkera gai batzuek erabiltzeko oraindik txiroa dalako ala basarritarrak ez ulertzen arren. Eraintza edo Gobiernuak eragtziko baluke euzkeran bitartez Udaleko erabaigaiak aztetrzea guziak batzarraldiak euzkeraz egiteko baimen eske zuzenduko litezke Madril'era ta orain eskuan daukatenian ajolik ez diote gazteleraz mintzatzeko. Ez da naikoa gu euzkeltzaleak gera-esan da eukeltzalea itzegiten ez da azaltzen egitetan baizik.

Gure asabagandik artu degun mintzoera miragarri au euzkaldunok ez darabilgu, nortzuk erabilliko dute ba?

Onekin naikoa adierazita dago ta uste degu gure ziñegotziak daukaten orban orizuzenduko dutela

ERRIKO ABERTZALEA

Erriko abertzale alderdikidetu edo afiliatutako danoi ta Euzko-Jeltzale Alderdia begi onez ikusten dutenari dei dagiyogu datorren asteartez illunabarreko zortziterditan betiko lekura.

Jeltzaleak etorri guziok dei oni erantzunaz, gauza asko bai dago erabakitzeko ta.

ELEBITZAN ALDE

"Euzkeltzaleak" bazkunak ta erriko Udalak euren urrutidazkiak zuzendu dituzte Ikaskizun erkal-seiñ'ari Euzkadi'ko ikastoletan elebitza jartzeko eskatuaz.

KIROL.

BERMEO

ARRAIÑ-URRITASUNA

Eldu jaku aspaldi guztian gosia ta ezereza: ez dakit zelan biziko geran ¡au dok tamalgarria!-

Erdel-errirantza be juan diraz emeko arraintzak gaixuak euron umiari Zerbaitxu jaten emoteko, baña ez dakit ezer koixuten badabe. Uste dot aurten lokartogaz gose andiak igaroko dituzala itxas-bazter gustiak. Ez dedilla-ba dakorik jazo ta Urtzik lagundu daiskula arraintzaliari.

URKIDI.

ZEANURI

NASKALDIJA

Undurraga'ko abade izentau dabe Etxezarraga'tar Julen erri-onetako semea. Zorionak.

Gaur Orrillan lenengo'an Gorbei'ko Etzantegira yoan da Sota'tar Imanol beste Bilbo'tar batzukez.

Ondiño ezta osatu emengo abel-osalaria. Illen lenengo-barikua Gaur lagun asko etorri da Deun txidor elexara. Baita eskoletako umiak be.

LUGIÑAK

Arto-eraiteko gertuten lugiña iraduz ibili dira egunokaz. Emen goxeti eraitea onuza-geyagokoa izatenda.

BATZOKIA

Asi bearko da emen be zerbait egiten. Gazteak bilduda lana egiten.

LORETA'KO ILLA

Gaioi lenengo eguna. Elezkizun onetara oste andia batzenda egunero.

BASERRITAR BAT.

¡ZEURE ONETAN JAUNA!

Laño itxutan Euzkalerria
Zebillanian galduta,
Itxi "Sabino'n" zantzo garratzak
Egi-bidean sartuta.

Arana-Goirin lenengotiko
Asi ederran lorea,
¡Zu ixan ziñan! Euzkalerrian
"Kirikiño" jaun maitia.

Andoni'gana noyan ezkero
Esaten nator "Bustintza"
Aman elean, zeutsat an golan
Eskinduko dot otoitza.

¡Agur Bustintza! ¡Ikasle batel
Barru-barrutik diñatzu,
Euzkerarenta lez donokirako
Zeure eskua luzetu.

Zidorra.

Olerki polit au, "Zidorra" idazle bizkorrak igaro dan larunbatian Urkiola'ra Andoni deunak ikertuten joiala, "Kirikiño"-ren illobi apaleko Gurutza deuna'ren oñetan opaldu eban. Eta, irakurlientzat atsegingarri izango dalakuan, izparringi onetara pozik bialtzen dot.

MAÑARIKO.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

NAPARRUA ZIAR

Naparrua beti ixan da Euzkadi ren buru, ta au jakin dabelako gixaldiak ziar españiatarrak bananduten ixan dabez euzkoen eta napartarren ixenak. Eurai ondo etorri yake "vascos y navarros" esatia. Baña euzkuak orren aurka egin biar dogu, euzkotarrik minenak, onenak napartarrak ixan baitira. Euzko abendaren berpizkunde onetan eurak buru ixan biar dabe. Orregaitik Bizkai'ko abertzale batzuk juan dira Naparrua aldera errijetan piztu daiten euzkotar odola. Bananduta ibilten bagara, batzuk gauza bat eskatu ta bestiak beste bat, eztogu ezer bere lortuko. Anairik zarrena Naparrua ixan yaku ta arreri zuur egotia yagoku guri, baña lotan daguan ezkero iratxartu dagigun.

Andik ibilli diran Jetzaliak pozik etorri dira oraindik bixirik dagualako euzko indarra. Udalak batez bere erantzun dabe ederto ta toki askoatan negar egijen biztalliak laster Euzkadi ren eskubidiak elduko yakuzalako. Aldijau eztaigun baztertu, begi zoliz egon baño.

TRINITARIOEN BURU

Zornotza'ko semia dan Zamalloa'tar Andolin aba ixentau dabe Irukoitztarren buru. Gixon jakintzuba da Zamalloa aba, ta berak idatzi eban lekaide orrein edestija lau eletan: españiarre, pantseraz, italeraz, eta lateraz. Iru bider ixan da Trinitarioen buru ta Roma urijan Batzar askotako onu emollia da.

IRUARRITZAGA ABEA

Ereslari ospatsuba ixan zan Yurre'ko, seme au. Gastetan il baitzan eta egingo ebazanen erdirik bere ez eban egin. Au ta guztiz bere gauza txukunak itxi euskuzan. Orain Yurre'ko udalak goraldu gura dau aba onen gomotea ta txaide bateri Iruarritzaga ixena jarriko dautso. Gero oriogallu bat egiteko dira.

UKUBILKARIJAK

"Excelcior" izparringijak eratuta ukabilketa ederra egin zan larunbata gabean. Notintza galanta ikusi genduban Euskalduna pelotatokijan. Otsa ikusteko zaletasunak eruan gendubazan baña tamalez ez eban ezer bere egin. Odola alde guztijetatik ixuriten eban eta bederatzigarren round ean Mateo baztertu zan. Aspaldijan Otsa geldi eguan dalako ei ixan zan larunata gabeko oinperatzia. Yentiak txistuka egin eutson azkenean, baña oba bakian itxi baeutsoen.

ZULOAGA MARGOLARIJA

"Paris Soir" izparringijak Zuloaga margolarijen uste batzuk dakarz Catalunya eta Euzkadi retzaz. Bere ustez beti euzkuak oinputa bixi ixan dira Madrid go agintarijak eurekana guztija eruan gura ixan dabelako. Euzkadi aberatza dala diño ta erri onek eztaukola zetan jaten emonik besteai. Zuloaga'k bere buruba ederlantzale egiten dau baña len bai len eskabide guztijok Euzkadi lortuko baleuz diño.

"LE MATIN"EK DIÑUANA

Bilbao'ra eldu ixan da France'ko izparringi onen ordezko bat. Erkala jabetu zanean Españia guztijan, bildur andija euki ei eben bilbotar aberatzak lan bako asko ta zozialista asko dagualako. Baña bere ustez esi bat ei dago comunisten eta zozialistan aurka egiteko: abertzaletasuna. Alderdi au ei da esirik gogorrena guztijai aurka egiteko. Españia'k ganera bildurrik ez ei dau euki biar onein aldetik autonomi billa baño eztatzan ezkero.

MINISTROEN EGOKEREA

Igandean urten ziran Eibar aldera Prieto, Unamuno, Queipo del Llano eta Domingo jaunak. "Muy ejemplar ciudad" ixena emon dautsoe uri oneri erkala lenengoz ontzat ortxe artu ebelako. Guztijak zer edo zer esan eben eta Unamuni jaunak euzkerazitz egin eban. Gero Gazteiz era eldu bat egin eben ango gauzak apur bat arteztuteko. Arratsaldean Campos Eliseos antzokijan egon ziran eta Luciano ren etxian apari ederra jan eben. Yentia eurrez agertu zan ministro jaunek Madrid era atzera biurtu ziranean. Prieto jaunak guztijai esan dautsoe Euzkadi ren aldelan egin dagijela, al diran eskubiderik andijenak lortu daiguzan.

"ZERUKO ARGIA"

Ona ille oneri yagokon zenbakijaren arki bidia:

Ama Birjiña Zeruko Ataria. Barren-izketak (olerkia). Azeria usategian. Jakinbearrak. O Quam glorifica (eresia). Padua'ko Antonio Santuaren Zazpigarren Eunurtea. Deabrua zatakin. Umezurtza. Misioak. Bilboko Simon A. Ag. Txinako Misiolaria. Ikasi... Ikasi...

Edergarriak

Zeruko Atea. Paduako Antonio Deuna. Txinar katekista Protestantetatik guregana etorria. Bilboko Simon Aita."

BILBAO'TAR SIMON ABA

Sanxelipuko Misio etxean, Otsaillaren 20'ean, il zan Bilboko Simon Misiolari on eta langillea.

Beti bezela bazkal ondoan idazten ari zan: eta ordu biek inguruan gaita zerbait somatu zuen.

Osasun beratzekoa zan eta gaitzak maiz berritzen zitzaikion: eta azken illabete, Neguilla eta Ilbeltzian, naiko odola bota zuen biriketatik.

Gaizki jartzean misiolari laguna ekartzeko adierazi zien morroiei, bañan Misiolaria Sifengtxen'en irurogei ta amar (70) kilometroko bidian zan.

Ta natz lenbizien etzala bearrik izango esan ba zien ere, gero ta okerragoj artzen asi zala ikusita agindu zuen Sifengtxenera joan eta Misiolaria deitzeko. Bañan morroia etxetik atera baño len, il zan Misiolaria. Eta kristauei begiratuz esan zien beti maitatu zituala eztiki; bañan txinako izkuntza nai bezain ondo etzekielako etziela agertu bere biotzeko maitetasuna.

Elizkizunetan kristauak eta fedegabeak beren begiramendu eta maitetasuna garbi aditzera eman zuten. Kristauak asko bildu ziran gure Jauna artu eta Misiolarian alde otoitz egiteko "Zeruko Jaun aundiari" eta ogeita amabi Meza sari bildu ziran Mezak ateratzeko.

Fedegabeak ere Meza bat aterazi zuten "gizon argi eta on onaren alde". Eta gañera sedazko xunda zabal batean idatzirik onela txinako izkuntzan "Tao tei pu riu" "Ikasbide zuzena eta ontasuna ez dira beñere galtzen".

Onelako zerrendak gizon ospatsuenei bakarrik bikaltzen dira.

Ez dezakegu esan zein izan zan bere azken gaitz ura: baña nabarri du bere ondokoak diotenez "angina de pecho" edo olakoren bat izan zala.

("Zeruko Argia"tik).

ESPANIA'TIK

ALBA'REN ASMUAK

Madril'dik.—Uri onetako "El Sol"eR onako barri au dakar:

"Bide onez yakin dogu Alba yauna Madril'a datorrala asi dan aste onetan. Lengo alderdi liberal gorria barritzeko, ta bere yente guziagaz errepulikari beri bero yarraitzeko asmua edo dau.

Etorri daiteneko izketa luze bat egingo dau Mequiades'egaz eta beste bat lein beineko Gobernu-buru dan Alcala Zamora'gaz.

Alba'ren lagun politikuak eta adiskideak diñoenez, alderdi ori barritzeko oinarria, Españi guztiarentzako lege bakarra izango ei da, ta ez arki bakotxarentzat berea Kataluñak gura dauan lez.

Oindiño ez daiteke gauza ziurrik esan, baina politika arazoetan, gogoz yardutea ei dator yaun ori."

Gobernua alde batera agindu ta agindu ari da, edonori iduritu txarra kentzeko giñoan, baina beste aldetik ba dira gizon azkerrak, eta batez, bere Españar sutsu asko, lege, bakotxik iñori itzi gura ez deutsonik.

DE LOS RIOS'EN ITZALDI BAT

De Los Rios ministru yaunak irratizkiñez itzaldi bat egin dau Argentina'rak ta Uruguai'rako, Montevideo'ko "El Ideal" egunkariaren eskabidez.

Aurrena agur biozkor bat egin eutsen angotarrai ta au bizi diran españarraiiri. Gero, beste gauza askoren artean esan eban, Errepulikea erriko ebagi-bear guztiak ebagitera etorri zala. Bein beingo Gobernuan dagozan gizonok lan orretan asi dirala, urrena datozenak lan berorreri ekin deicen. Batez bere Batzar guztizkoa gertu bear dala esan eban, Españia'en etorkizuneko legea antolatzeko.

Españarran guraria betatearren, erlejiñoa libre edo bakotxaren eskuko itziko ei da, ta Batzar guztizkoak erabagi bear ei dabe, erriak Eleizagaz zer artu-emon izan bear dauan.

Irakaskintza asko onduko ei da, erririk txikienera bere eldu daiten.

Lurraren banakuntza izango da arazorik beiñenetakoa, oiñarteko lurralde itzalak batenak izan ez daitezan.

Beste agur bategaz amaitu eban bere itzaldia, ango errepulikeakaz artu-emon biozkorragoak gura ebazala esanik.

LAN BAKOENTZAT

Bartzelona'tik.—Emengo gotzainak bere agerkari edo Boletin'ean lan bakoetzaz diardu eta arren, eskatzen deutse bere barrutitarrairi, eskua luzatu deiela beartsuairi Jesukristok legez. Berau bere langile semea ta langilea zan, arean.

Lan bakoen alde gauza onik asko egiten ari dan bazkun baten eginkizunak aintzat artzen dauz, eta berak bos mila laurlekogaz asten dau arpide bt, Kristiñau zintzoak aren irakasbidea yarraitu dagien.